GORLIZKO OSPITALEKO LORATEGIEN ETA BERDEGUNEEN MANTENTZE-LAN OSORAKO BALDINTZA TEKNIKOEN PLEGUA

2021/02240 Espedientea

Urezarantza Ibiltokia nº 1; 48630 – Gorliz (BIZKAIA)
Tfno: 944 006 600 Fax: 944 006 627

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
OSASUN ETA KONTSUMO SAILA
DEPARTAMENTO DE SANIDAD Y CONSUMO

1.- XEDEAREN DESKRIBAPENA

Kontratu honen xedea Gorlizko Ospitaleko lorategien eta berdeguneen mantentze-lan osoaren zerbitzua da.

2.- EGIN BEHARREKO JARDUERAK

Ondoren, Gorlizko Ospitaleko lorategi eta berdegune guztiak behar den bezala egon daitezen nahitaez egin beharreko lanak azalduko ditugu.

2.1.- BERDEGUNEAK GARBITZEA:

Berdegune, espaloi eta erretenetan dauden landare zein landare ez diren hondar guztiak erratzez garbitu eta bilduko dira, horiek, erabiltzeko egoera ezin hobean egoteaz gain, behar bezalako itxura ere izan dezaten. Garbitzearekin batera, Ospitaletik kanpoko esparruan dauden paperontziak hustuko dira. Gutxieneko maiztasuna: astean bitan.

Garbiketa egun beretan egingo da hilero, astearte eta ostiraletan, jaiegunak badira izan ezik, eta ahal bada 8:00etatik 15:00etara bitartean egingo da.

2.2.- BERDEGUNEAK MOZTEA:

Soropilak aldizka moztuko dira, soropil trinkoa eta indartsua lortzeko, belar txarrik edo denbora aurrera joatearen ondorioz hasieran jarritako espezieak desplaza ditzakeen espezierik gabe.

Urtean gutxienez 12 mozketa egingo dituzte; udaberrian eta udan izan ezik, orduan gutxienez 2 mozketa egingo baitira. Pinudi inguruko berdeguneetan eta aparkaleku inguruan gutxienez 6 mozketa egingo dira urtean.

Enpresa adjudikazioduna arduratuko da moztutako soropila bildu eta kudeatzeaz.

Ez dute mozketa egingo, belarra eta lurra heze edo bustita dagoenean, soropil-ebakitzekoaren puntek eta gurpilek marroi-kolorea hartzea eragozteko.

Udan, eguraldi lehorra dagoenean, behar den altuera izaten utziko zaio soropilari, sustraiak ongi elikatuta egon daitezen, baina, aldi berean, motz egongo da, itxura ona emateko, eta belar txarren handitze kontrolatua aintzat hartuta.

2.3.- ERTZEN MOZKETA ETA MANTENTZE-LANAK:

Soropil-eremuaren eta landare-sail, zintarri eta zoladuren arteko ertzak soropil-mozketa bakoitzean moztu eta mantenduko dira, gutxienez hilean behin.

2.4.- ONGARRITZE KIMIKOAK:

Soropila, sasoikako lore-sailak, heskaiak, zuhaixka-multzoak eta berdeguneetako zuhaiztiak dituzten zelaietan ongarri kimiko konplexuak, mikromantenugaiak, kelatoak eta landareen garapen hobea eta horien egoera fisiologiko hobezina lortzeko behar diren produktu kimiko guztiak jartzea da.

Aplikatzeko garaiak, batik bat, Udaberria eta Udazkena izango dira (urtean bitan), horien bitartean aplikatzeko beharrik sumatzen bada idatzizko agindua jaso bezain laster egin beharko da. Ongarritze kimikoak dagoeneko ezarritako landareetan egin behar direla ulertzen da, hasierako ongarriak ez bezala.

NPK motako ongarri konplexuak erabiliko dira, baita osaeran aurretik aipatutako mineralak dituzten gainerako produktuak ere.

Mikromantenugaiak eta oligoelementuak erabili behar izatekotan, hauek merkatuan dauden produktu komertzialak erabilita lortuko dira eta fabrikatzaileak aholkaturiko dosien arabera.

2.5.- ZUHAITZEN, ZUHAIXKEN, HESKAIEN ETA BESTELAKO APAINDURA-LANDAREEN INAUSKETAK ETA MOZKETAK:

Lan hauek landare, zuhaitz eta zuhaixken formak hobetzeko eta mantentzeko egingo dira, horrela haien apaindura-balioa handitzeko.

Gelditzen diren hondarrak berehala bilduko dira.

Horrela behar duten zuhaitzei behar bezalako zurkaitza jarriko zaie, haztean lesioak izan ez ditzaten. Halaber, zentroko zuzendaritzaren iritziz hala behar duten guztiak zuzenduko dira; eta aldian behin zaindu eta tenkatuko dira ainguratzeak. Era berean, zuhaitzen bat erortzen bada, berriz landatuko da, eta finkatu egingo da zurkaitzak, lokarriak edo eusteko bestelako sistemak erabiliz, Ospitalearekin aurretik hitzartuta betiere.

Eskuz edo mekanikoki egingo da hori, baina lortu behar den forma agindutakoa izaten saiatuko da beti, eta saihestu egingo dira behar ez diren ebaketak, deformazioak edo mozketa desegokiak.

Zuhaitz, zuhaixka eta landareen kasuan, loraldia eta hosto-erortzea aintzat hartuko dira inausketa egin ahal izateko.

Heskaietan, alde paraleloak eta angelu zuzenak lortzen saiatu behar da, inausketa amaitutakoan adaska bakartiak edo nabariak egon ez daitezen.

Adarren inausketa zuhaitza, zuhaixka edo landarea indartzeko egingo da, horretarako adar lehor eta ahulak, gaizki eratuak edo ingurukoekiko konkurrenteak moztuko dira, inguruarekiko forma erregular eta egokiak lortzeko.

Maiztasunari dagokionez, bereizi egingo dira urtean mozketa bat edo bi behar dituzten zuhaitzak, zuhaixkak eta landareak eta gutxienez urtean bi behar dituztenak.

2.6.- TRATAMENDU FITOSANITARIOAK:

Zuhaiztiak, zuhaixkek, heskaiek, soropilek eta beste landare batzuek jasan ditzaketen izurriteen eta gaixotasunen aurka egiteko jarduera, alegia. Horretarako, izurritearen, gaixotasunaren eta hasierako agerraldiaren kontra egiteko edo prebentzio-tratamendurako behar diren giza baliabideak eta bitarteko materialak eduki beharko ditu lizitatzaileak, aurre egiteko eta prebenitzeko lanei berehala ekin ahal izateko.

Produktu komertzialak erabiliko dituzte, konposizioa eta toxikotasuna behar bezala bermatuta dituztenak, betiere Nekazaritza Ministerioak horren gainean egiten dituen kontrolekin bat etorriz. Horien aurkako lanarekin batera ongarritze foliarreko lanak ere egin ahal izango dira.

Lan honen unitatea zuhaitz, heskai, zuhaixka, landare edo soropilaren gaineko unean uneko jarduketa izango da.

Urteko maiztasunari dagokionez, behar den guztietan egin beharko da izurriaren edo gaixotasunaren lehen sintomak agertu eta berehala, eta zuzentzeko zein prebentzioz mantentzeko tratamendua aplikatuko da.

Dauden zuhaitz, zuhaixka, heskai edo landareen ezin konponduzko narriadura gertatuz gero, antzeko ezaugarriko beste batzuez ordeztuko dira, betiere enpresa adjudikaziodunarekin zerikusirik ez duten langileek halabeharrez edo nahita egindako erasoaren ondorioz gertatu ezean.

2.7.- PARTERREAK MANTENTZEA:

Parterreak eta landare-sailak mantentzea, belar txarrak kentzea eta ureztatzeko zein tantakako sistemen mantentze-lanak.

Urtean bitan egingo dira lan horiek, sei hilean behin. Gainera, parterre horietan dauden landareen egoerari buruzko txostena egingo da, eta Zerbitzu Orokorretako arduradunari zeintzuk diren hondatuta dauden landareak jakinaraziko zaio eta horiek birjartzeko aukerak, jabeak balora ditzan.

2.8.- PINUDI ETA APARKALEKUEN INGURUA:

Pinudi eta aparkalekuetako lorategi-eremuak mantentzea; urtean sei aldiz kenduko da inguru horretako sastraka.

2.9.- DUNEN GUNEA ETA INGURUAK:

Dunen gunea eta inguruak mantentzea, alegia; urtean lau aldiz garbituko dira sastrakaz.

3.- ZERBITZUAK ZAINDU BEHAR DITUEN GUNEAK

Ospitaleko esparruan dauden berdegune eta lorategi guztiak.

4.- LANGILEAK

Gorlizko Ospitaleak eskatzen duenean, zerbitzua eskaini behar duten langileen gaitasun fisikoa eta ezagutza teknikoak egiaztatu beharko dira.

Langile guztiek zerbitzua behar bezalako uniformearekin egin beharko dute, erraz identifikatu ahal izateko.

5.- MATERIALA ETA AZPIEGITURA

Enpresa adjudikaziodunak, kontratuaren hasieran, argi eta garbi zehaztuko du zer makineria eta tresna erabiliko dituen azaldutako zereginak gauzatzeko.

6.- MENDEKOTASUN FUNTZIONALA – PARTEAK ETA TXOSTENAK

Enpresa adjudikaziodunak zerbitzuaren arduradun bat izendatuko du, eta zerbitzuarekin zerikusia duen guztiaren berri emango dio horrek Gorlizko Ospitaleko Zerbitzu Orokorretako Buruari, beraz, instalazioetan egindako lanen berri emango dio aldizka (hilero) eta ezarritako lan-planaren garapenean izandako edozein gorabehera jakinaraziko dio.

Jarduera bakoitza amaitu ondoren, zerbitzuaren arduradunak parte bat aurkeztu beharko du, eginiko ekintza guztiak bertan azalduta, haien jarraipena egitearren.

7.- IKUSKAPEN-SISTEMAK

Zerbitzuaren koordinatzaileak koordinatu eta gainbegiratuko du lorezaintza-zerbitzua; Zerbitzu Orokorretako Buruaren jarraibide eta aginduak bete beharko ditu beti.

Zerbitzu Orokorretako Buruaren eskumena da ematen den lorezaintza-zerbitzua etengabe gainbegiratu eta kontrolatzea, eta ontzat jo beharko ditu egindako lanak.

Kontrolak egingo dira lanak behar bezala egiten dituztela bermatzeko, eta Plegu honetan eskatutako baldintzekin bat datozen zerbitzuak lortzeko. Baldintzok bi dira nagusiki:

- Lorezaintza-zerbitzuaren kalitateari eustea
- Erabiltzaileari emandako zerbitzuan nahi den kalitatea lortzen ari garela egiaztatzea.

8.- ADJUDIKAZIODUNAREN KONPROMISOA

Adjudikaziodunak konpromisoa hartzen du era guztietako legezko, arauzko edo bestelako xedapenak bere kontura eta arduraz betetzeko, baita kontratuak barne hartzen duen zerbitzuko jarduerekin lotutako baimenak, lizentziak eta abarrak eskatzeko ere (langileen segurtasun eta garbitasunari buruzko araudia eta ingurumen eta basogintzaren arloko legeria betetzea, besteak beste).

Eranskina

GORLIZKO OSPITALEKO LORATEGIEN ETA BERDEGUNEEN MANTENTZE-LANAK EGITEKO, ***2022-2023 URTEETARAKO*** LAN-EGUTEGIA HEMEN ZEHAZTEN DEN KRONOGRAMAREKIN BAT ETORRIKO DA, HAIN ZUZEN,

1.740 ordu.

GORLIZKO OSPITALEKO LORATEGI ETA BERDEGUNEEN MANTENTZE-LANEN MAIZTASUNEN URTEKO PROGRAMA

JARDUERAK		Urteko esku-hartzeak	Urtarrila	Otsaila	Martxoa	Apirila	Maiatza	Ekaina	Uztaila	Abuztua	Iraila	Urria	Azaroa	Abendua
GARBIKETA	Berdeguneak, oinezkoen igarobidea, bideak	104	Astean bitan (4 astearte eta 4 ostiral)	Astean bitan (4 astearte eta 4 ostiral)	Astean bitan (4 astearte eta 4 ostiral)	Astean bitan (4 astearte eta 4 ostiral)	Astean bitan (4 astearte eta 4 ostiral)	Astean bitan (4 astearte eta 4 ostiral)	Astean bitan (4 astearte eta 4 ostiral)	Astean bitan (4 astearte eta 4 ostiral)	Astean bitan (4 astearte eta 4 ostiral)	Astean bitan (4 astearte eta 4 ostiral)	Astean bitan (4 astearte eta 4 ostiral)	Astean bitan (4 astearte eta 4 ostiral)
	Paperontziak hustea													
SOROPILA MOZTEA	Berdeguneak, ertzak eta abarrak.	18	Mozketa 1	Mozketa 1	Mozketa 1	2 mozketa	2 mozketa	2 mozketa	2 mozketa	2 mozketa	2 mozketa	Mozketa 1	Mozketa 1	Mozketa 1
	Pinudi eta aparkalekuen ingurua	6		Mozketa 1		Mozketa 1		Mozketa 1		Mozketa 1		Mozketa 1		Mozketa 1
	Dunen gunea eta inguruak	4			Mozketa 1			Mozketa 1			Mozketa 1			Mozketa 1
ONGARRITZEA		2				Unitate 1						Unitate 1		
HESKAIAK MOZTEA ETA PARTERREAK GARBITZEA	Zuhaitzak, heskaiak eta abarrak inaustea	2						Unitate 1						Unitate 1
	Parterreen mantentze-lanak	2						Unitate 1						Unitate 1
TRATAMENDU FITOSANITARIOAK		B/A	Beharraren arabera											
ZUHAITZAK ZUZENTZEA		B/A	Beharraren arabera											

Urezarantza Ibiltokia nº 1; 48630 – Gorliz (BIZKAIA)
Tfno: 944 006 600 Fax: 944 006 627

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
OSASUN ETA KONTSUMO SAILA
DEPARTAMENTO DE SANIDAD Y CONSUMO

Osakidetza

GORLIZKO OSPITALEA
HOSPITAL GORLIZ

PLIEGO DE BASES TÉCNICAS PARA EL MANTENIMIENTO INTEGRAL DE JARDINES Y ZONAS VERDES DEL HOSPITAL GORLIZ

Expediente 2021/02240

Urezarantza Ibiltokia nº 1; 48630 – Gorliz (BIZKAIA)
Tfno: 944 006 600 Fax: 944 006 627

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
OSASUN ETA KONTSUMO SAILA
DEPARTAMENTO DE SANIDAD Y CONSUMO

1.- DESCRIPCIÓN DEL OBJETO

El objeto del presente contrato consiste en el Servicio de mantenimiento integral de jardines y zonas verdes del Hospital Gorliz.

2.- TAREAS A DESARROLLAR

A continuación se describen los trabajos a realizar, de obligado cumplimiento, para conseguir el perfecto estado de mantenimiento y conservación de todos los jardines y zonas verdes del Hospital Gorliz.

2.1.- LIMPIEZA DE ZONAS VERDES:

Se concreta en el barrido y recogida de todos los restos vegetales y no vegetales que se encuentren en las zonas verdes, aceras y canalones, al objeto de que éstas se muestren en perfectas condiciones de uso e imagen. Esta limpieza incluye también el vaciado de las papeleras del recinto exterior del Hospital. Frecuencia mínima 2 veces/semana.

Los días en que se llevarán a efecto las limpiezas serán constantes todos los meses, martes y viernes, salvo si coincide festivo, y se efectuarán preferentemente de 8 a 15 horas.

2.2.- SIEGA DE ZONAS VERDES:

Consistirá en una serie de cortes periódicos distribuidos a lo largo del año, a fin de obtener un césped compacto y vigoroso, sin malas hierbas o especies que, como consecuencia del paso del tiempo, tiendan a desplazar a las especies implantadas en su ejecución inicial.

El número mínimo de siegas/año a realizar serán 12, salvo primavera y verano en que la frecuencia mínima serán 2 veces. El número mínimo de siegas será de 6 veces/año en las zonas verdes del área cercana al pinar y zona de aparcamiento.

La recogida del césped segado y su evacuación será responsabilidad de la empresa adjudicataria.

Para evitar amarronamientos de las puntas y las rodadas del cortacésped, no se realizará la siega con la hierba y tierra húmeda o mojada.

En verano, con el tiempo seco, se dejará que el césped tenga la altura suficiente para que las raíces estén bien alimentadas pero a la vez estará baja para causar el efecto de buena impresión, compitiendo con el crecimiento controlado de las malas hierbas.

2.3.- RECORTE Y MANTENIMIENTO DE BORDES:

El recorte y mantenimiento de bordes delimitadores de la superficie de césped con macizos, bordillos y pavimentos, se realizará, en cada siega de césped con frecuencia mínima de una vez por mes.

2.4.- ABONADOS QUÍMICOS:

Consiste en el aporte sobre las praderas de césped, macizos de flor de temporada y vivaces si hubiere, arbustos y arbolado de zonas verdes, de abonos químicos complejos, micro nutrientes, quelatos y cuantos productos de carácter químico fueran necesarios para conseguir un mejor desarrollo vegetativo y un perfecto estado fisiológico de estos vegetales.

Las épocas de aplicación serán en Primavera y Otoño principalmente (2 veces al año), y si se observara la necesidad de realizarlo entre dichas épocas, éste se realizará igualmente una vez recibida la orden escrita. Los abonados químicos se entenderá que deben realizarse sobre vegetales establecidos ya, diferenciándose de los abonos de establecimiento inicial.

Los productos utilizados consistirán en abonos complejos del tipo N.P.K. y demás productos que, como tal, contengan en su composición los minerales anteriormente citados.

En el caso de tener que aportar micronutrientes y oligoelementos, éstos se realizarán a través de los productos comerciales existentes en el mercado y de acuerdo a las dosis recomendadas por el fabricante.

2.5.- PODAS Y RECORTES DE ÁRBOLES, ARBUSTOS, SETOS Y OTRAS PLANTAS ORNAMENTALES:

Estos trabajos se realizarán con el fin de mejorar y mantener las diferentes formas que dispongan las plantas, árboles y arbustos con el objetivo de incrementar su valor ornamental.

Los restos obtenidos se recogerán inmediatamente a su ejecución.

Los árboles cuyo tamaño así lo precise se mantendrán perfectamente tutorizados para evitar lesiones en su crecimiento. Asimismo, deberán ser enderezados todos aquellos que la Dirección del Centro estime oportuno siendo necesario mantener la vigilancia y tensionamiento de los anclajes de forma periódica. De igual forma, en el supuesto de caída de algún árbol, se procederá a su replantación afianzándolo por medio de tutores, vientos u otros sistemas de sujeción, acordados previamente con el Hospital.

La ejecución se realizará con medios manuales o mecánicos, pero siempre se velará para que la forma a obtener resulte la encomendada, evitándose cortes indebidos, deformaciones o mutilaciones inadecuadas.

En el caso de los árboles, arbustos y plantas se tendrá en cuenta la época de floración, y caída de la hoja para realizar su poda.

En los setos, se velará para que éstos dispongan de caras paralelas y sus ángulos sean rectos, evitándose varetas aisladas o sobresalientes una vez finalizada la poda.

La selección de las ramas a podar tenderá a fortalecer al árbol, arbusto o planta, eliminando ramas secas debilitadas, mal formadas o competitivas con las de su alrededor, de forma que se obtengan formas regulares armoniosas con el entorno.

Respecto a la frecuencia de actuación, habrá que diferenciar los árboles, arbustos y plantas que precisen una o dos podas anuales de los arbustos y setos con forma cuyos recortes han de realizarse como mínimo dos veces al año.

2.6.- TRATAMIENTOS FITOSANITARIOS:

Consistirá en la actuación destinada a la lucha contra las plagas y enfermedades que puedan aparecer y sufrir el arbolado, arbustos, setos, césped y otras plantas. Para ello, el licitador deberá disponer de cuantos medios humanos y materiales fuesen necesarios para actuar sobre la plaga, enfermedades y brote inicial o tratamiento preventivo de manera que se adopten los trabajos de lucha y prevención de forma inmediata.

Los productos a utilizar deberán ser productos comerciales, cuya composición y toxicidad, esté debidamente garantizada, de acuerdo con los controles que el Ministerio de Agricultura ejerce al respecto. La labor combativa se podrá combinar con labores de abonado foliar.

Las unidades de este trabajo consistirán en la actuación puntual sobre el árbol, seto, arbusto, planta o césped.

En cuanto a la frecuencia anual de ejecución, habrán de realizarse cuantas veces sea necesario en el momento de los primeros síntomas de plaga o enfermedad, aplicándose tanto tratamiento correctivo como mantenimiento preventivo.

Si se produjese deterioro irreparable de árboles, arbustos, setos o plantas existentes se deberán reponer por otras de similares características, salvo que estas se produzcan por agresión fortuita o voluntaria de personal no relacionado con la empresa adjudicataria.

2.7.- MANTENIMIENTO DE PARTERRES:

Consiste en el mantenimiento de los parterres y macizos, retirada de las malas hierbas y mantenimiento de riegos y goteos.

En cuanto a la frecuencia de ejecución, se realizará dos veces al año, una vez por semestre, realizándose además un informe del estado de las plantas existentes en dichos parterres y notificandose al Responsable de Servicios Generales: plantas deterioradas y posible reposición de las mismas, para su valoración por parte de la propiedad.

2.8.- CERCA DEL PINAR Y APARCAMIENTOS:

Consiste en el mantenimiento de las zonas ajardinadas de los pinares y de los aparcamientos, que se desbrozarán seis veces al año.

2.9.- ZONA DE DUNAS Y ALEDAÑOS:

Consiste en el mantenimiento de las zonas de dunas y aledaños, que se desbrozarán cuatro veces al año.

3.- AREAS A CUBRIR POR EL SERVICIO

La totalidad de las zonas verdes y jardines existentes en el recinto hospitalario.

4.- DEL PERSONAL

Se deberá acreditar, cuando sea requerido por el Hospital Gorliz, la capacidad física y los conocimientos técnicos por parte del personal que va a realizar el servicio.

Todo el personal deberá prestar sus servicios debidamente uniformado para su fácil identificación.

5.- MATERIAL E INFRAESTRUCTURA

La empresa adjudicataria hará constar al inicio del contrato, de forma clara, la maquinaria y herramientas que la empresa proyecta emplear para la realización de las tareas descritas.

6.- DEPENDENCIA FUNCIONAL – PARTES E INFORMES

La empresa adjudicataria designará una persona responsable del servicio quien informará de todo lo relacionado con el mismo al Jefe de Servicios Generales del Hospital Gorliz, reportando

los trabajos realizados en las instalaciones de forma periódica (mensualmente) y comunicando cualquier incidencia en el desarrollo del plan de trabajo establecido.

Tras finalizar cada una de las actuaciones el responsable del servicio deberá entregar un parte con las acciones realizadas al objeto de realizar su seguimiento.

7.- SISTEMAS DE INSPECCIÓN

El Servicio de jardinería será coordinado y supervisado por el coordinador del servicio, que deberá seguir siempre las instrucciones o directrices del Jefe de Servicios Generales.

Es facultad del Jefe de Servicios Generales someter la prestación de los servicios de jardinería, a la inspección y control de forma continuada, debiendo dar el visto bueno de los trabajos realizados.

La realización de los controles tiene como finalidad garantizarse la correcta ejecución de los trabajos y obtener unas prestaciones satisfactorias de acuerdo con las condiciones exigidas en el presente Pliego y que se resumen en dos:

- Conseguir mantener la calidad real del servicio de jardinería
- Ofrecer al usuario la confianza de que se está obteniendo la calidad deseada en el servicio prestado.

8.- COMPROMISO DEL ADJUDICATARIO

El adjudicatario se compromete formal y expresamente a cumplir a su costa y bajo su responsabilidad cualesquiera disposición legal, reglamentaria u otro rango, así como solicitud de autorizaciones, permisos, licencias etc., relacionados con la actividad del servicio objeto del contrato, tales como cumplimiento de la normativa de seguridad e higiene de su personal, legislación medioambiental, forestal, etc.

Anexo

EL CALENDARIO DE TRABAJO PARA EL MANTENIMIENTO INTEGRAL DE JARDINES Y ZONAS VERDES EN EL HOSPITAL GORLIZ PARA LOS ***AÑOS 2022 y 2023***, QUE SE AJUSTARÁ AL CRONOGRAMA DE TRABAJO EXPUESTO A CONTINUACIÓN, TOTALIZARÁ:

1.740 horas.

ZERBITZU OROKORRETAKO ARDURADUNA
LA RESPONSABLE DE SERVICIOS GENERALES

CRISTINA RODRIGUEZ VARONA

Firmado digitalmente por CRISTINA RODRIGUEZ VARONA
Fecha: 2021.10.04 14:36:43 +02'00'

Izpta./Fdo.- *CRISTINA RODRIGUEZ VARONA*

PROGRAMA ANUAL DE FRECUENCIAS DE MANTENIMIENTO DE JARDINES Y ZONAS VERDES DEL HOSPITAL GORLIZ

ACTIVIDADES		Intervenciones anuales	Enero	Febrero	Marzo	Abril	Mayo	Junio	Julio	Agosto	Septiembre	Octubre	Noviembre	Diciembre
LIMPIEZA	Zonas verdes, paso peatonal, viales	104	2 veces/semana (4 martes y 4 viernes)	2 veces/semana (4 martes y 4 viernes)	2 veces/semana (4 martes y 4 viernes)	2 veces/semana (4 martes y 4 viernes)	2 veces/semana (4 martes y 4 viernes)	2 veces/semana (4 martes y 4 viernes)	2 veces/semana (4 martes y 4 viernes)	2 veces/semana (4 martes y 4 viernes)	2 veces/semana (4 martes y 4 viernes)	2 veces/semana (4 martes y 4 viernes)	2 veces/semana (4 martes y 4 viernes)	2 veces/semana (4 martes y 4 viernes)
	Vaciado de papeleras													
SIEGA DE CESPED	Zonas verdes, bordes, etc.	18	1 Siega	1 Siega	1 Siega	2 Siegas	2 Siegas	2 Siegas	2 Siegas	2 Siegas	2 Siegas	1 Siega	1 Siega	1 Siega
	Cerca del pinar y aparcamientos	6		1 Siega		1 Siega		1 Siega		1 Siega		1 Siega		1 Siega
	Zona de dunas y aledaños	4			1 Siega			1 Siega			1 Siega			1 Siega
ABONADO		2				1 Unidad						1 Unidad		
RECORTE DE SETOS Y LIMPIEZA DE PARTERRES	Poda de recorte de árboles, setos, etc.	2						1 Unidad						1 Unidad
	Mantenimiento parterres	2						1 Unidad						1 Unidad
TRATAMIENTOS FITOSANITARIOS		S/N	Según necesidad											
ENDEREZADO DE ÁRBOLES		S/N	Según necesidad											

Urezarantza Ibiltokia nº 1; 48630 – Gorliz (BIZKAIA)
Tfno: 944 006 600 Fax: 944 006 627

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
OSASUN ETA KONTSUMO SAILA
DEPARTAMENTO DE SANIDAD Y CONSUMO